

AMVISAREN erantzuna COVID-19aren pandemiaren aurrean

Koronabirusaren pandemiaren eta alarma egoeraren deklarazioaren aurrean Uraren Zerbitzu Integrala ematea bermatzeko, AMVISAK hainbat neurri hartu ditu bere kudeaketa eremu guztietan, eta neurriek indarrean jarraituko dute osasun alertak irauten duen bitartean.

Hartutako erabakien barruan hauek sartzen dira:

- Edateko ura hartu, tratatu eta banatzeko zerbitzuaz arduratzen diren pertsonak elkarrengandik urruntzeko ezohiko neurriak.
- Mantentze eta kontserbazio lanak egiten jarraitzea, hornidura eta saneamendu sareetan gertatzen diren hausturak edo intzidentziak konpontzeko.
- Txanda independenteak ezartzea, uren kalitatearen kontrolerako laborategiaren eta informazio sistemen funtzionamendua ziurtatzeko.
- Bezeroen Arretarako zerbitzua eskaintzea, tramiteak telefono bidez (945 16 10 10) eta on line (amvisa@vitoria-gasteiz.org) egiteko. Arreta egokitzen joango da egoerak ematen dituen aukeretara.
- Ez ordaintzeagatik hornidura mozketarik ez egitea, eta zerbitzurik gabe dauden kontratu titularrak berriz konektatzea, hala eskatzen badute.

Ur hornidura eta saneamendua funtsezko zerbitzua da herritarrentzat, eta garrantzitsua; beraz, alarma egoerak irauten duen bitartean AMVISAREN lehentasuna izan da edateko uraren hornidura egiten jarraitzea eta hondakin uren saneamendu sistemak behar bezala funtzionatzea bermatzea, Gobernu Zentralaren eta Eusko Jaurlaritzaren Ebazpenek diotena eta udal mailan ezarritako arauak ezarritakoa betez.

Horretarako, AMVISAK **kontingentzia planak diseinatu eta ezarri ditu gertatu daitezkeen ezohiko egoerarako, enpresa barruan hainbat erabaki hartuta,** zeintzuei esker, biztanleen lasaitasunerako,

osasun alertan aste batzuk igaro ondoren funtsezko zerbitzu horiek ematen jarraitu ahal izan dugun, orain arte bezala.

Hauek dira ezarritako lehentasunei erantzuten eta langileen artean kutsadurak ekiditen uzten diguten neurriak:

- Telelanaren sustapena funtsezkoak ez diren zerbitzuetan eta osasun arrazoiengatik arrisku bereziko taldeetako batean sartzen diren langileen artean.
- Bulego eta instalazioen garbiketa eta desinfekzio lanak indartzea.

Igorritako fakturaren ordainketari dagokionez, ekainaren 15a izango da borondatezko oraindeketa egiteko aldiaren azken eguna. AMVISAK arreta eskainiko die zerbitzuak ordaintzeko zailtasunak dituzten edo zerbitzuen ordainketa baldintzatzen duten egoeretan dauden herritarrei eta saltokiei, horren berri ematen badiote, eta ordainketa zatitan egiteko aukera edo ordainketa geroratzeko aukera emango die, batere kosturik gabe.

Ur Hornidura eta Saneamenduko Elkarteak (AEAS) gogora ekartzen du Osasun Ministerioak koronabirusa eta kontsumoko urari buruzko komunikatu bat argitaratu duela berriki eta komunikatu horretan ziurtatzen zuela uren desinfekzioarako egun Espainian erabiltzen den tratamendua kontsumoko uren babes maila egokia bermatzen duela. Horrela, beraz, **edateko ura erabat segurua da edateko, sukaldatzeko eta higienerako erabiltzeko.**

URAREN MUNDUKO EGUNA

Uraren Munduko Eguna eklipsatuta gertatu da 2020an, osasun larrialdia dela-eta. Halere, gogoratu behar da **aurten klima aldaketari buruz eta klima aldaketak uran dituen eraginei buruz hausnartzera gonbidatu gaituela Nazio Batuak erakundeak.**

Klimari lotutako muturreko gertakariak uraren zikloaren aldagarritasuna areagotzen dute, eta uraren kalitatea eta erabilgarritasuna txikiagoa izaten laguntzen dute, uraren hornidurari bereziki eraginda. Horregatik, agintaritzak zientifikoak klima aldaketaren gainean dioena oinarri hartuta, NBEak hiru mezu helarazten dizkigu, zerbait egitera bultzatzeko:

- Posible da uraren kudeaketari lotuta gertatzen diren berotegi efektuko gasen igorpenak modu iraunkorrean murriztea.
- Ez dugu itxaron behar, ura lehentasuna izan behar da klimaren alorreko ekintza planetan.
- **Parte aktiboa izan behar dugu:** politika publikoak zein gure egunerokoan familian edo bakarka erabiltzen ditugun

irtenbideak, denak dira lagungarri klima aldaketak uran dituen ondorioak murrizteko.

AMVISAK eta Vitoria-Gasteizko Udalak bere egiten dituzte mezu horiek.

Hiriak ingurumenarekin duen konpromisoak klima aldaketaren aurkako borrokako parte aktibo bihurtu du hiria. Horren adibideak dira uholdeak prebenitzeko politikak, ur kontsumoen kontrola, saneamendu alorreko jardunbide egokien sustapena eta ur hornidura bermatzeko egiten diren inbertsioak.



IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?
Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea: info@amvisa-futura.org